

XEDAPEN OROKORRAK

SEGURTASUN SAILA

4693

154/2019 DEKRETUA, urriaren 1ekoa, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan erabili beharreko hautetsontzi, kabina, boto-paper, bozkatzeko gutun-azal eta hauteskundeetarako gainerako dokumentazioaren eredu ofizialak eta ezaugarriak eta material hori entregatzeko prozedura zehazten dituen Dekretuaren hirugarren aldaketari buruzkoa.

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunderi buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 88.1 artikulua ahalmena ematen dio Eusko Jaurlaritzari Lege horretan aurreikusitako hautetsontzi, kabina, boto-paper, bozkatzeko gutun-azal eta gainerako dokumentuen eredu ofiziala eta ezaugarriak Dekretu bidez zehazteko. Dekretuan xedatuko dira aipaturiko hauteskundeetarako dokumentazioa inprimatzeko, prestatzeko eta entregatzeko baldintzak.

Aipaturiko artikuluan jasotako gaikuntza erabiliz, Eusko Jaurlaritzak abenduaren 23ko 220/2008 Dekretua onartu zuen. Horren bidez, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan erabili beharreko hautetsontzi, kabina, boto-paper, bozkatzeko gutun-azal eta gainerako dokumentuen eredu ofizialak eta ezaugarriak zehazten dira, baita material hori entregatzeko prozedura ere (aurrerantzean, 220/2008 Dekretua, abenduaren 23koa). Dekretu horrek zehazten zuen arestian deskribatutako hauteskunde-material guztia, eta 2009ko hauteskunde autonomikoetan aplikatu zen.

Abenduaren 23ko 220/2008 Dekretu hori aldatu egin zuten uztailaren 17ko 136/2012 Dekretuak eta ekainaren 7ko 90/2016 Dekretuak, Eusko Legebiltzarrerako 2012ko eta 2016ko hauteskundeetan aplikatzeko.

Eginiko azken hauteskunde-prozesuetan lortutako esperientziari esker, egokitzat jotzen da aldaketa puntual edo hobekuntza tekniko batzuk egitea arau honetan; adibidez: bozkatzeko boto-paperetan letra larria erabiltzea hautagai-zerrendetako kideen izen-abizenetan, eta letra larriak erabiltzea aurkeztutako zein aldarrikatutako hautagai-zerrendak osatzen dituzten kideetan, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen direnean. Hori guztia ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 56.2 eta 62. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera. Horren helburua da boto-paperak behar bezala egiteko segurtasuna handitzea eta argitalpen horietan gerta daitezkeen huts materialak saihestea.

Halaber, honako agindu honetan aurreikusitako aldaketetako batzuk jasotzen ditu dekretu honek: INT/318/2019 Agindua, martxoaren 19koa, zeinaren bidez aldatzen baitira hauteskunde-prozesuen arauketa osagarriari buruzko apirilaren 16ko 605/1999 Errege Dekretuaren eranskinak. Zehazki, izena aldatzen da hauteskunde-koalizioa eratzeko inprimakiaren izenburuan, eta hauteskunde-batzorde zentralari eta autonomia-erkidegoko hauteskunde-batzordeari hauteskunde-koalizioen baliozko eraketa jakinarazteko beste inprimaki bat sortzen da, honako hauei jarraikiz: hauteskunde-batzorde zentralak apirilaren 13ko 1/2016 Jarraibidean onartutakoa, eta ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 49.2 artikuluan aurreikusitakoa.

Azkenik, arau hau egitean, egokitzat jo da interesdunarentzako entzunaldi-izapidea ez egitea, dekretu hau instrumental hutsa baino ez delako eta ez daukalako eraginik foru- edo toki-administrazioetan.

Horregatik, Segurtasuneko sailburuak proposatuta, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorri eta Gobernu Kontseiluak 2019ko urriaren 1ean egindako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Aldatu egiten da abenduaren 23ko 220/2008 Dekretuaren 2. artikulua –boto-paperei buruzkoa– 2. paragrafoa, eta honela geratuko da idatzita:

«2.– Boto-paperetan, lurralde historikoko hauteskunde-batzordeak aldarrikatutako hautagaien izen-abizenak –letra larriz– baino ez dira agertuko, ordezkorik agertu gabe».

Bigarren artikulua.– Aldatu egiten da abenduaren 23ko 220/2008 Dekretuaren bigarren xedapen gehigarria, eta honela geratuko da idatzita:

«Bigarrena.– 1.– Boto-paperak behar bezala egiteko asmoz eta hauteskunde-emaitzak kalitate hoberenean argitaratzeko, lurralde historiko bakoitzean aldarrikatutako hautagai-zerrendek Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari emango diote identifikazio ofizialeko ikurra edo logotipoa, bai koloretakoa zein zuri-beltzekoa. Horrez gain, lurralde historikoko hauteskunde-batzordeek sail horri bidaliko diote aurkeztutako zein aldarrikatutako hautagai-zerrendetako kideen zerrenda.

2.– Boto-paperen zehaztasuna bermatzeko, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariak letra larriz argitaratuko ditu aurkeztutako eta aldarrikatutako hautagai-zerrendak osatzen dituzten pertsonen izen-abizenak».

Hirugarren artikulua.– Partzialki aldatzen da abenduaren 23ko 220/2008 Dekretuaren eranskinen edukia, ekainaren 7ko 90/2016 Dekretuaren bigarren artikulua emandako idazketan (90/2016 Dekretua, ekainaren 7koa, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan erabili beharreko hautetsontzi, kabina, boto-paper, bozkatzeko gutun-azal eta hauteskundeetarako gainerako dokumentazioaren eredu ofizialak eta ezaugarriak eta material hori entregatzeko prozedura zehazten dituen Dekretuaren bigarren aldaketari buruzkoa). Hain zuzen ere, honela aldatzen da:

«1.–Aeranskina aldatzen da: Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetarako inprimakien zerrenda eta dagokien erreferentzia. Zehazki, "Hautagai-zerrendak aurkeztea eta hauteskunde-koalizioak eratzea" 3. eranskinaren aurkibidean, EHPC/3.4 ereduaren izena aldatzen da, eta EHPC/3.5 eredu gehitzen da –1. eranskinean daude jasota–.

2.– "Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetarako inprimaki-ereduen zerrenda" B eranskinean, "Hauteskunde-koalizioa eratu izana jakinaraztea" EHPC/3.4 inprimaki-ereduaren izena aldatzen da, eta, horren ordeztu, 2. eranskinean jasota dagoena jartzen da.

3.– "Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetarako inprimaki-ereduen zerrenda" B eranskinean, beste inprimaki-eredu bat sortzen da: EHPC/3.5 "Hauteskunde-batzorde zentralari eta autonomia-erkidegoko hauteskunde-batzordeari hauteskunde-koalizioen baliozko eraketa jakinaraztea". Inprimaki-eredu hori 3. eranskinean dago jasota.

4.– "Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetarako inprimakiak inprimatzeko eta egiteko ezaugarriak" C eranskinean, EHPC/3.4 inprimaki-ereduaren izena aldatzen da, artikulua honen bigarren apartatuan agertzen den bezala. Halaber, inprimaki-eredu berri honen ezaugarri teknikoak zehazten dira: EHPC/3.5 "Hauteskunde-batzorde zentralari eta autonomia-erkidegoko hauteskunde-batzordeari hauteskunde-koalizioen baliozko eraketa jakinaraztea". Inprimaki-eredu hori 4. eranskinean dago jasota.

5.– Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetarako inprimaki elektronikoen zerrendaren D eranskinean, EHPC/3.4 eta EHPC/3.5 inprimaki-ereduak daude, 5. eranskinean».

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko urriaren 1ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Segurtasuneko sailburua,
ESTEFANÍA BELTRÁN DE HEREDIA ARRONIZ.

URRIAREN 1EKO 154/2019 DEKRETUAREN I. ERANSKINA
A ERANSKINA, ABENDUAREN 23KO 220/2008 DEKRETUARENA
INPRIMAKIEN ZERREDA ETA BAKOITZAREN ERREFERENTZIA

3. eranskina.– Hautagai-zerrendak aurkeztea eta hauteskunde-koalizioak eratzea.

- Mod. EHPC/3.4.– Hauteskunde-koalizioa eratzea.
- Mod. EHPC/3.5.– Hauteskunde-batzorde zentralari eta autonomia-erkidegoko hauteskunde-batzordeari hauteskunde-koalizioen baliozko eraketa jakinaraztea.

URRIAREN 1EKO 154/2019 DEKRETUAREN II. ERANSKINA
B ERANSKINA, ABENDUAREN 23KO 220/2008 DEKRETUARENA
INPRIMAKI-EREDUEN ZERRENDA

- Mod. EHPC/3.4.– Hauteskunde-koalizioa eratzea.

EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK 202_

Mod. EHPC/3.4 Eredua

ELECCIONES AL PARLAMENTO VASCO 202_

pag. 1 or.

HAUTESKUNDE-KOALIZIOA ERATZEARENA
CONSTITUCIÓN DE LA COALICIÓN ELECTORAL

_____, _____-(e)ko _____-ren _____-(a)
En _____, a _____ de _____ de _____

BILDUTA: / REUNIDOS:

D./D. ^a	jauna/andrea
Alderdi politiko / alderdi-federazio honen legezko ordezkaria: Como representante legal del partido político / federación de partidos:	
Alderdi Politikoen Erregistroan jasota dagoenaren arabera, (kargu) honekin: Según figura en el Registro de Partidos Políticos, en calidad de (cargo):	
D./D. ^a	jauna/andrea
Alderdi politiko / alderdi-federazio honen legezko ordezkaria: Como representante legal del partido político / federación de partidos:	
Alderdi Politikoen Erregistroan jasota dagoenaren arabera, (kargu) honekin: Según figura en el Registro de Partidos Políticos, en calidad de (cargo):	
D./D. ^a	jauna/andrea
Alderdi politiko / alderdi-federazio honen legezko ordezkaria: Como representante legal del partido político / federación de partidos:	
Alderdi Politikoen Erregistroan jasota dagoenaren arabera, (kargu) honekin: Según figura en el Registro de Partidos Políticos, en calidad de (cargo):	
D./D. ^a	jauna/andrea
Alderdi politiko / alderdi-federazio honen legezko ordezkaria: Como representante legal del partido político / federación de partidos:	
Alderdi Politikoen Erregistroan jasota dagoenaren arabera, (kargu) honekin: Según figura en el Registro de Partidos Políticos, en calidad de (cargo):	

JASOTA UZTEN DUTE, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko Legearen 49. 2 artikulua xedatzen duenaren arabera, hauteskunde horietara hauteskunde-koalizio moduan aurkeztea adostu dutela. Koalizio hori honen menpe dago: HACEN CONSTAR que, de conformidad con el artículo 49.2 de la Ley 5/1990 de Elecciones al Parlamento Vasco acuerdan concurrir a las citadas elecciones en coalición electoral, rigiéndose ésta por el siguiente

KOALIZIO-ITUNA / PACTO DE COALICIÓN

1.- Hauteskunde-koalizioaren izena, siglak eta ikurra

Denominación, siglas y símbolo de la coalición electoral

Hauteskunde-koalizioaren izena: Denominación de la coalición electoral:
Hauteskunde-koalizioaren siglak: Siglas de la coalición electoral:
Hauteskunde-koalizioaren ikurra (erantsi .jpg fitxategia): Símbolo de la coalición electoral (adjuntar fichero .jpg):

2.- Lurralde-eremua / Ámbito territorial

Bere lurralde-eremua hautesbarruti hauek osatzen dute: Su ámbito territorial lo constituyen las circunscripciones de:

3.– Hauteskunde-koalizioak hautesbarrutietan izen, sigla eta ikur hauek erabiliko ditu.

La denominación, siglas y símbolo con la que concurrirá la coalición electoral en las diferentes circunscripciones son las siguientes:

Hautesbarrutia/Circunscripción:
Hauteskunde-koalizioaren izena: Denominación de la coalición electoral:
Hauteskunde-koalizioaren siglak: Siglas de la coalición electoral:
Hauteskunde-koalizioaren ikurra (erantsi .jpg fitxategia): Símbolo de la coalición electoral (adjuntar archivo .jpg):

Hautesbarrutia/Circunscripción:
Hauteskunde-koalizioaren izena: Denominación de la coalición electoral:
Hauteskunde-koalizioaren siglak: Siglas de la coalición electoral:
Hauteskunde-koalizioaren ikurra (erantsi .jpg fitxategia): Símbolo de la coalición electoral (adjuntar archivo .jpg):

4.– Hauteskunde-propagandarako eta karteletarako logoa (hala badagokio, .jpg artxiboa erantsi)
Logo para cartelería y propaganda electoral (en su caso adjuntar archivo .jpg)

--

5.– Zuzendaritza- eta koordinazio-organoak
Órganos de dirección y coordinación

--

6.– Ordezkariorokorrak eta lurraldekoak
Representantes generales y territoriales

<p>Hauteskunde-koalizioak Autonomia erkidegoko hauteskunde-batzordearen aurrean ORDEZKARI OROKORRA izateko jaun/andre hau izendatzen du: La coalición designa como REPRESENTANTE GENERAL ante la Junta Electoral de Comunidad Autónoma a D./D^a.</p>

<p>Eta ORDEZKARI OROKOR ORDEZKOA izateko (hala badagokio), jaun/andre hau: Y como REPRESENTANTE GENERAL SUPLENTE (en su caso) a D./D^a.</p>
--

Halaber, hauteskunde-koalizioaren ordezkari orokorrak, hauteskunde horietarako, antolakunde politiko horren HAUTAGAI-ZERRENDAREN ORDEZKARI EDO LURRALDEKO ORDEZKARI IZENDATZEN DITU aparteko agiri batean zerrendatzen diren pertsonak eta bertan zehazten da zein hautesbarrutitarako izendatzen diren.

Asimismo, el y la representante general de la coalición electoral DESIGNA COMO REPRESENTANTES TERRITORIALES O DE CANDIDATURA de la citada formación política para dichas elecciones a las personas que se relacionan en documento aparte, indicando la circunscripción para la que son designados.

7.- Administrazio orokorrak

Administradoras y Administradores generales

Hauteskunde-koalizioaren ordezkari orokorrak ADMINISTRATZAILE OROKOR TITULAR izendatzen du jaun/andre hau:
El o la representante general de la coalición electoral designa como ADMINISTRADORA o ADMINISTRADOR GENERAL TITULAR a D^a/D.

Eta ADMINISTRATZAILE OROKOR ORDEZKO (hala badagokio) izendatzen du jaun/andre hau:
Y como ADMINISTRADOR O ADMINISTRADORA GENERAL SUPLENTE (en su caso) a D./D^a.

8.- Hauteskuntetarako diru-laguntzen banaketa

Reparto de subvenciones electorales

9.- Beste klausula batzuk

Otras cláusulas

SINATZAILEAK / FIRMANTES

Alderdi politiko / alderdi-federazioen legezko ordezkariak, hauteskunde-koalizioa eratzea adostuta, koalizio-itun hau sinatzen dute.

Representantes legales de los partidos políticos/federaciones de partidos que acuerdan constituir la coalición electoral y firman el presente pacto de coalición:

Sinadura/Firma
Izena/Nombre
NAN/DNI
Alderdi politiko / alderdi-federazioa Partido político / Federación de partidos

Sinadura/Firma
Izena/Nombre
NAN/DNI
Alderdi politiko / alderdi-federazioa Partido político / Federación de partidos

Sinadura/Firma
Izena/Nombre
NAN/DNI
Alderdi politiko / alderdi-federazioa Partido político / Federación de partidos

Sinadura/Firma
Izena/Nombre
NAN/DNI
Alderdi politiko / alderdi-federazioa Partido político / Federación de partidos

2019ko urriaren 14a, astelehena

pag. 7 or.

Ordezkariorokorrak, eta hala badagokio, lurraldeko ordezkariek eta administratzaile orokorrek izendapena eta kargua onartzeko sinadura.
Firma de aceptación del cargo de representante general y de la designación, en su caso, de representantes territoriales y administradoras o administradores generales:

Sinadura/Firma
Izendatutakoaren izena (titularra) Nombre de la persona designada (Titular)
NAN/DNI

Sinadura/Firma
Izendatutakoaren izena (titularra) Nombre de la persona designada (Titular)
NAN/DNI

Administratzaile orokorrak izendapena eta kargua onartzeko sinadura:

Firma de aceptación del cargo de administradora o administrador general:

Sinadura/Firma
Izendatutakoaren izena (titularra) Nombre de la persona designada (Titular)
NAN/DNI

Sinadura/Firma
Izendatutakoaren izena (titularra) Nombre de la persona designada (Titular)
NAN/DNI

HARREMANETARAKO DATUAK / DATOS DE CONTACTO

Hauteskunde-koalizioaren helbidea / Dirección de la coalición electoral

Jakinarazpenetarako, hauteskunde-koalizioaren helbidea hau da: El domicilio de la coalición electoral, a efectos de notificaciones es el siguiente:

Autonomia erkidegoko hauteskunde-batzordearen aurrean ordezkari orokorrak direnen datu pertsonalak

Datos personales de los y las representantes generales ante la Junta Electoral de Comunidad Autónoma

ORDEZKARI OROKOR TITULARRA / REPRESENTANTE GENERAL TITULAR

Izen-abizenak: Nombre y apellidos:	
NAN/DNI:	
Helbidea (jakinarazpenetarako): Dirección (a efectos de notificaciones):	
Telefono finkoa: Teléfono fijo:	Telefono mugikorra: Teléfono móvil:
Faxa: Fax:	
Helbide elektronikoa: Correo electrónico:	

ORDEZKARI OROKOR ORDEZKOA (hala badagokio) / REPRESENTANTE GENERAL SUPLENTE (en su caso)

Izen-abizenak: Nombre y apellidos:	
NAN/DNI:	
Helbidea (jakinarazpenetarako): Dirección (a efectos de notificaciones):	
Telefono finkoa: Teléfono fijo:	Telefono mugikorra: Teléfono móvil:
Faxa: Fax:	
Helbide elektronikoa: Correo electrónico:	

Administratzaile orokorren datu pertsonalak

Datos personales de los administradores y de las administradoras generales

ADMINISTRATZAILE OROKOR TITULARRA / ADMINISTRADORA O ADMINISTRADOR GENERAL TITULAR

Izen-abizenak: Nombre y apellidos:	
NAN/DNI:	
Helbidea (jakinarazpenetarako): Dirección (a efectos de notificaciones):	
Telefono finkoa: Teléfono fijo:	Telefono mugikorra: Teléfono móvil:
Faxa: Fax:	
Helbide elektronikoa: Correo electrónico:	

ADMINISTRATZAILE OROKOR ORDEZKOA (hala badagokio) / ADMINISTRADOR O ADMINISTRADORA GENERAL SUPLENTE (en su caso)

Izen-abizenak: Nombre y apellidos:	
NAN/DNI:	
Helbidea (jakinarazpenetarako): Dirección (a efectos de notificaciones):	
Telefono finkoa: Teléfono fijo:	Telefono mugikorra: Teléfono móvil:
Faxa: Fax:	
Helbide elektronikoa: Correo electrónico:	

URRIAREN 1EKO 154/2019 DEKRETUAREN III. ERANSKINA
B ERANSKINA, ABENDUAREN 23KO 220/2008 DEKRETUARENA
INPRIMAKI-EREDUEN ZERRENDA

- Mod. EHPC/3.5.– Hauteskunde-batzorde zentralari eta autonomia-erkidegoko hauteskunde-batzordeari hauteskunde-koalizioen baliozko eraketa jakinaraztea.

EUSKO LEGBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK 202_
ELECCIONES AL PARLAMENTO VASCO 202_

Mod. EHPC/3.5 Eredua

**HAUTESKUNDE-BATZORDE ZENTRALARI ETA AUTONOMIA-ERKIDKOGO HAUTESKUNDE-
 BATZORDEARI HAUTESKUNDE-KOALIZIOEN BALIOZKO ERAKETA JAKINARAZTEA**

**COMUNICACIÓN A LA JUNTA ELECTORAL CENTRAL Y A LA JUNTA ELECTORAL DE LA COMUNIDAD
 AUTÓNOMA DE CONSTITUCIÓN VÁLIDA DE COALICIONES ELECTORALES**

..... **HAUTESKUNDE-BATZORDEAREN AURREAN ERATUTAKO HAUTESKUNDE-KOALIZIOAK**
 COALICIONES ELECTORALES CONSTITUIDAS ANTE LA JUNTA ELECTORAL

Hauteskunde-koalizioaren izena / Denominación de la coalición electoral
Parte hartzen duten alderdi politikoak / Partidos integrantes
Eremua/Ámbito

Hauteskunde-koalizioaren izena / Denominación de la coalición electoral
Parte hartzen duten alderdi politikoak / Partidos integrantes
Eremua/Ámbito

URRIAREN 1EKO 154/2019 DEKRETUAREN IV. ERANSKINA
C ERANSKINA, ABENDUAREN 23KO 220/2008 DEKRETUARENA
INPRIMAKIAK INPRIMATZEKO ETA EGITEKO EZAUGARRIAK

3. eranskina.– Hautagai-zerrendak aurkeztea eta hauteskunde-koalizioak eratzea.

- EHPC/3.4 eredia.– Hauteskunde-koalizioa eratzea.

Formatu elektronikoaren ezaugarriak:

Gutxi gorabeherako neurriak: UNE A-4, 210 x 297 mm

• EHPC/3.5.– Hauteskunde-batzorde zentralari eta autonomia-erkidegoko hauteskunde-batzordeari hauteskunde-koalizioen baliozko eraketa jakinaraztea.

Formatu elektronikoaren ezaugarriak:

Gutxi gorabeherako neurriak: UNE A-4, 210 x 297 mm

URRIAREN 1EKO 154/2019 DEKRETUAREN V. ERANSKINA
D ERANSKINA, ABENDUAREN 23KO 220/2008 DEKRETUARENA
INPRIMAKI ELEKTRONIKOEN ZERRENDA

EHPC/3.4.– Hauteskunde-koalizioa eratzea.

EHPC/3.5.– Hauteskunde-batzorde zentralari eta autonomia-erkidegoko hauteskunde-batzordeari hauteskunde-koalizioen baliozko eraketa jakinaraztea.